

Indarkeriaz ari, hura mugatuz


Hannah Arendtek boterearen eta biolentziaren arteko loturaz dihardu 'Indarkeriaz' obran, besteak beste • Itziar Diez de Ultzurrunek euskaratu du, eta Katakrakek argitaratu

Amaitu Igartua Aristondo

Duela urtebete zen argitara ateratzekoa, baina pandemiak atzeratu egin du hori ere. Dena dela, Hannah Arendten *Indarkeriaz* liburua berandu helduko zen eskal literaturara, zegokion datan kaleratua izan balitz ere. Izan ere, Hedoi Etxarte Katakrakek editoreari «bitxia» iruditzen zaio orain arte obra euskaraz argitaratua egon ez izana, aintzat hartuta «Euskal Herrian, tamalez, indarkeriaz eta politikak azken hamarkadetan izandako harremana». Hutsune hori betetzeaz arduratu da bere argitaletxea Itziar Diez de Ultzurrunen itzulpenarekin, eta Mario Zubiaga Teoria Politikoko irakaslearen hitzaurreak biribildu du edizioa.

Editoreak aipatutako bi elementu horiek ditu oinarri liburuarik, hain zuzen: indarkeria eta politika. Zubiagak azaldu duenez, *polis*-a «boterearen lekua»- eta *polemos*-a «gerra, gatazka»- «elkartuta» ageri dira Arendten teorian, baina ez, ordea, «bat eginda», irakasleak azpimarratu duenez. Zehaztu du botere politikoa ekintza kolektiboan sortzen dela, eta biolentzia, aldiz, ekintza indibiduala dela. Arendten garaian gertutakoa zen mehatxu bat erabili du Zubiagak adibide gisa: gerra nuklearraren irudia, indarkeria gauzatzeko aski baita banako bakar batek botoi bat sakatzeko, baina botere politikoa banako horien elkarbizitzan dago oinarritua. Alegia, «natura ezberdinekoak» dira kontzeptuok, baina, halere, estuki lotuta daude beti. «Ez dago gauza arruntagorik boterearen eta biolentziaren arteko nahasketa baino».

Horrenbestez, bata zein bestea egoki zedarritzea izan zuen helburu pentsalariak, ohikoa zuen legez. Zubiagak dioenez, uko egiten zion filosofotzat kalifikatua izateari, bere lana ez baitzen «egia bilatzea», baizik eta «errealitatea ulertzeko kontzeptuak ezaritzea». «Kontzeptuen mugarrizte lana oso inportantea zen» haren zantz, irakaslearen arabera, eta praktika horren hamaikagarren adibidea dakar *Indarkeriaz* liburuarik, *politika* eta *indarkeria* terminoak zehazteko saiakera ere bai baita. «Politikotasunaren



Edozein pentsamolde politikotan sailka zitekeen arren, askotatik edan zuen Hannah Arendtek bere teoriak ontzeko. BERRIA

erreindikazio sakona egin zuen Arendtek. Haren muinaz hausnartu zuen, baita baztertu ezin diren kontzeptuak sortzen duten zauri sendaezinez ere». Halaber, irakasleak gaineratu du lanean politikotasunaren «kolonizazioaz» ere badiharduela: «Zenbateraino konpon dezaketek teknika eta zientziak eztabaida politikoa, eta nola nahi den neutralizatu moralaren bidezidorretik sendaezina den tentsio bat».

Eraginen batuketan

Arendtek kontzeptuak mugatzea izan zuen jomuga, baina ezin daitezke pentsalariarekin beste horrenbeste egin, Etxarteren hitzei erreparatuta, bederen: «Arendten interes puntuetako bat da heldulekurik gabe pentsatzen zuela». Dioenez, filosofo izaerari uko egiteaz gain, feminista izaeratik ere urrundu egin zen

«nahiz eta XIX. mendeko hainbat emakume berreskuratu»-, eta, liberalismoan kokatzen duten arren, sailkapen hori ere gaitzesiko luke pentsalariak ziurrenik, Etxarteren iritziz. Kontrakoa adieraziko balute ere, berdin: «Ez dator Alemaniako ezkerreko pentsamoldeetik; beraz, ezkerrekoek mesfidantzaz jokatu dute haren obrarekin».

Kategorizatuz ezina izan zen Arendt, baina, era berean, kategorio guztietatik edan zuen bere teoria politikoa osatzeko. Inguruan izan zituena eragina jaso zuen, eta bere pentsamoldeak ere beste horrenbeste egin zuen haiengan. Besteak beste, harreman intelektual estua izan zuen Karl Jaspers psikiatrarekin, baita Martin Heideggerrekin ere –harreman sentimentala ere izan zuen filosofo alemaniarrekin—. Bere ama Martha Cohn ere ga-

rrantzitsua izan zen bere garapen teorioan, baita bere azken senarra ere, Heinrich Blucher ezker-tiarra.

Ingurukoekin ez ezik, ordea, Arendten teoriak urrunagoko



«[Teorien] jatorrizko iturrietara jotzen saiatu zen Arendt, eta aldeak azpimarratzen. Bat ez zetorrena aztertu zuen»

Itziar Diez de Ultzurrun
Itzulzailea

pentsalariarekin ere izan zuten erlazioa eta, batez ere, ika-mika. «Antipodetan» zituena teoriaren testuak ikertu zituen, garai-

ko gazteek irakurtzen zituztenak, nagusiki –Lenin eta Frantz Fanon, besteak beste–, eta horien ideien erabileraren inguruan hausnartu zuen, Itziar Diez de Ultzurrun itzulzaileak azaldu duenez: «Saiatu zen jatorrizko iturrietara jotzen, eta aldeak azpimarratzen. Ikusten zenarekin ez bazetozen bat teoriak, aztertzen zuen zer zen bat ez zetorren hori».

Eraginen aniztasun horrek testuaren forma baldintzatu zuen, aipu eta oin oharrez lepo baitago *Indarkeriaz* obra. Ezaugarri hori izan da itzulpen lanaren oztopoetako bat, Diez de Ultzurrunek nabarmendu duenez: «Itzulpen jarioa eteten zuten, iturrietara jo eta ikusi behar nuelako ea euskaratuta zeuden». Gainera, «tolesturaz eta sakonuz betetako auto-rea» izanik, beharrezkoa egin zaio «orekari abila» izatea: «Euskaraz erraz irakurtzeko testu bat eman behar nuen, baina atxiki lotuz jatorrizkoari. Itzulpen gintzan esaten den bezala: 'Ahal bezain hurbil eta behar bezain urrun'». Izenburutik bertatik izan ditu «zalantzak», aitortu duenez, aukeran baitzituena *bertxa*, *botizkeria* eta *biolentzia* ere.

Motza, baina mamitsua

Obrak 160 bat orrialde ditu, baina, hala ere, pentsalariak gai asko garatzen ditu bertan. Politika eta indarkeria ardatz gisa erabilia, beste hainbat ertziz heltzen die Arendten teoriak, itzulzaileak azpimarratu duenez. «Liburu honek gogoeta eragiten laguntzen du; gai asko azaltzen ditu, eta, nire ustez, azalderatik alde egiten eta klixe bidez pentsatzeaz urrun laguntzen du». Diez de Ultzurrun «irakurle arrunt» gisa hurbildu du pentsalariaren lanari, eta hainbat azpimarra egin dizkio, haietako asko egunerokotasunez beteak, dioenez.

Esaterako, Arendtek «kezka» agertzen du zientziaren garapenera eta unibertsitatearen eta askatasunaren arteko loturaren inguruan, eta, halaber, «eskuinekotzat jotzen den nazionalismo» baten sorreraz ohartarazten du pentsalariak, «populismoaren ondorioz gaur egunera ekar daitekeena», itzulzailearen ustez. Era berean, «aintzat hartzeko» derituz gizaek ekintzen helburuei buruz egindako gogoetari: «Arendtek garrantzia ematen die ustekabekoei. Ezin daitezke aurreikusituz gizaek ekintzei zer ondorio izango dituzten. Hortaz, bihurtzeko helburuak garrantzitsua izan daitezke hasieran lortu asmo ziren helburuak baino».